

Frankizia erako denda berria zabaldu du Leonen**EROSKIK HIRU ERKIDEGOTARA ZABALDU DU
DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEK
KUDEATUTAKO SUPERMERKATU EREDUA**

- Gisa horretako ezaugarriak dituen bosgarren denda da kooperatibaren barnean; beste laurak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Katalunian daude.
- EROSKI k jarraitu egiten du desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu eredua hedatzen; 2015ean ekin zion bide horri, GUREAK taldearekin batera, eta 2017an AMPANSein ere hasi zen lankidetzan.
- Saltoki berriak 300 m²-ko erosketa gunea dauka, 3.500 erreferentziako produktu sorta, eta zortzi laguneko talde batek kudeatzen du
- SOLTRA enplegu zentro bereziarekin batean sustatu du ekimen hori, eta aukera berriak eskaini nahi ditu askotariko gaitasunak dituzten pertsonak lan munduan barneratzeko

Elorrio, 2019ko maiatzaren 9a- EROSKIk sendo eusten dio desgaitasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta lan munduan barneratzeko proiektuari, eta frankizia erako supermerkatu berri bat inauguratu du Leongo Puente Villarente herrian, EROSKI City izenarekin. SOLTRA enplegu zentro bereziarekin batean sustatu du ekimen hori, eta aukera berriak eskaini nahi ditu askotariko gaitasunak dituzten pertsonak lan munduan barneratzeko Gisa horretako ezaugarriak dituen bosgarren supermerkatua da kooperatibaren barnean.

EROSKIk 2015ean inauguratu zuen desgaitasuna duten pertsonak kudeatutako lehen supermerkatua, Gipuzkoan, GUREAK taldearekin, zeinaren xedea baita lan aukera egonkorak sorraraztea eta kudeatzea, desgaitasuna duten pertsonentzat behar bezala egokituak. Euskal Autonomia Erkidegoan baditu beste bi ere, Gasteizen hain zuzen. *"Orain hiru urte, berrikuntza sozialeko ekimen aurrendari bat jarri genuen martxan, etorkizunean hedatzeko asmoz. Aurreko esperientziak baikorrak izan direnez, frankizia erako gure denden eredua lehiakorra dela erakusten du horrek, eta ekonomia sozialeko ekintzaileei, kooperatibei eta enpresei irekia dago; helburua da enplegua eta aberastasuna sortzea gure ingurunean, eta aurrera egitea enplegu sozialaren dibertsifikazioan"*, adierazi du Enrique Martinez EROSKIren Frankizia Saileko zuzendariak.

EROSKI
Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel:
946
211 comunicacion@eroski.es
214

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE
JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel:
944 **Online prentsa**
EIZQUIERDO@CO 158 **aretoa**
azubiaga@cor 642



2017. urtean, Caprabok eta AMPANS Fundazioak berrikuntza sozialeko proiektu bat jarri zuten martxan Katalunian, desgaitasuna daukaten pertsonak lan munduan sartzeko, eta gisa horretako lehen supermerkatua inauguratu zuten, Bartzelonan.

Leongo supermerkatu berria EROSKI City izenarekin zabaldu da, eta inbertsioa 350.000 eurokoa izan da; 300 m²-ko erosketa gune bat dauka, eta bertan, bezeroek 3.500 erreferentziatako produktu sorta izango dute eskura, markarik ezagunenetakoak, marka propiokoak eta tokiko ekoizleenak.

Zortzi laguneko talde batek kudeatzen du saltokia; askotariko gaitasunak dituzten pertsonak dira, eta aurreko hilabeteetan, bakoitzak bere lanposturako formazio espezifikoak jaso du Vegalsa-EROSKIk Leonen dauzkan Familia Autozerbitzuak supermerkatuetan: batzuek ordainlekuan aritzeko, besteek produktuak kokatzeko, arduradun izateko...

Guztiei irekita dagoen enpresa

Pertsonen kudeaketa politikari dagokionez, Vegalsa-EROSKIn berezko lekua dauka aniztasunaren kudeaketak. Horretako, lan arloko politika inklusiboak lantzen ditu, eta lehentasuna ematen dio aniztasun funtzionalak dituzten pertsonak eta kolektibo baztertuak lan munduan sartzeari, enpresa gisa sinetsita dagoelako begiraden aniztasunak dakarrela bikaintasuna.

Gizarte Erantzukizunaren arloan, bazterketa arriskuan dauden kolektiboak biltzen dituzten 38 erakunderekin lankidetzan aritu zen konpainia 2018. urtean, eta horrek ere argi islatzen du zer-nolako garrantzia ematen dion kolektibo zaurgarrienak laguntzeari, bai formazioa emanez eta bai lan munduan sartzeko bideak eskainiz. Konpainiak 100 lankidetzat hitzarmen sinatu zituen, praktiketan zeuden 135 ikasleri eman zien formazioa eta 44 lagun berri hartu zituen Vegalsa-EROSKiren langile taldean.

EROSKIk 52 frankizia inauguratu zituen 2018an

EROSKIk 52 frankizia inauguratu zituen 2018an, guztira 7.650.000 euroko inbertsioa egin zuen eta 308 lanpostu sortu. EROSKI sendo doa aurrera kooperatiba Espainia osoan hedatua egon dadin. Frankizia erako saltokien sarea autonomia erkidego guztietara zabaldu da (Kanarietara izan ezik), eta aurtengo helburua da are gehiago hedatzea eta aurreko urteetan bezainbeste saltoki irekitzea; azken lau

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel:
946
211
214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel:
944
158
642

**Online prentsa
aretoa**

EIZQUIERDO@CO
azubiaga@COR



urteetan, izan ere, 267 baino gehiago inauguratu ditu, eta gaur egun, osotara, frankizia erako 500 supermerkatu izatera iritsi da.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel:
946
211
214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel:
944
158
642
EIZQUIERDO@CO
azubiaga@cor

Online prentsa
aretoa